



## MUGIKORTASUNEAN PARTE HARTZEKO IKASLEAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK, EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAREN BAITAN

Hautagai bakoitzak lortzen duen puntuazioa jarraian adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen batuketa izango da, gehienez 10 puntu (\*):

1. % 5 **espediente akademikoa**: lehenengo mailan ikasitako eta ebaluatutako ikasgai guztien batez besteko nota.

2. % 10 **ingeleseko ahozko maila**, ingeleseko irakasleek jarritako nota edo ingeleseko departamentuak horretarako prestatutako proba baten bidez lortutakoa.

3. % 65 **zeharkako gaitasunak**. Zikloko tutorearen eta irakasleen balorazioa. Kontuan hartuko da, modu negatiboan, ikasleak jokabide-txosten desegokiren bat izango balu eta modu positiboan ondorengoak:

- Erantzukizuna eta autonomia pertsonala
- Motibazioa
- Zailtasunak gainditzeko gaitasuna
- Gizarte-trebetasunak

4. % 20 **Ikasleak atzerrian esperientzia izateko duen motibazioa**

Irizpide horien arabera hautaketa egin ondoren, berdinketa gertatuz gero, Erasmus+ programaren arabera "aukera gutxikoak" moduan aintzat hartutako 7 egoeretako batean dauden ikasleei emango die lehentasuna.

Hautaketa-irizpide hauek HETEL mugikortasun patzuergoko kide guztientzat orientagarriak izango dira, bai erdi mailako bai goi mailako ikasleentzat, baina ikastetxeek irizpide bakoitzari emandako pisua aldatzeko aukera izango dute.